BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, EIBARREN BIZI DIREN IMMIGRATUTAKO PERTSONEI ZUZENDUTAKO HIZKUNTZA-HARRERAKO PROGRAMAREN ETA IMMIGRATUTAKO EMAKUMEEN AHALDUNTZE-PROZESUAK ALFABETATZEAREN BIDEZ DINAMIZATZEKO ZERBITZUAREN EGIKARITZE-KONTRATUA ARAUTZEKOA

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS QUE REGULARÁN EL CONTRATO DE EJECUCIÓN EN EL MUNICIPIO DE EIBAR DEL PROGRAMA DE ACOGIDA LINGÜÍSTICA DIRIGIDA A LA POBLACIÓN INMIGRADA DEL MUNICIPIO DE EIBAR Y EL SERVICIO DE DINAMIZACIÓN DE PROCESOS DE EMPODERAMIENTO DE MUJERES INMIGRADAS A TRAVÉS DE LA ALFABETIZACIÓN

1. AURKEZPENA

Eibarko Udaleko Gizartekintza Sailak, bere eskumenak definitzen dituen esparrutik abiatuta, prozedura bat jarri du martxan zerbitzu bat kontratatzeko immigratutako pertsonei zuzendutako hizkuntza-harrerako programa bat gara dezan; pertsona horiek egun Eibarko Helduen Hezkuntza Zentroan eta Andretxea-Eibarko Emakumeen Etxean artatzen dira.

2018ko urriaren 29an, Bizikidetzarako eta Aniztasunerako 2018-2021 Plana onartu zen aho batez Udal Osoko Bilkuran, eta, testuan deskribatzen den bezala, Eibarko udalerrian migrazio-fenomenoak ibilbide luzea izan du denboran zehar. Eibarko Udalaren Gizartekintza Sailak uste du fenomeno horrek berdin jarraituko duela hurrengo urteetan ere; izan ere, eibartarren batez besteko zahartze-prozesuaren eraginez epe ertainera beharrezkotzat jotzen da kanpoko eskulana, batez ere, zaintza-sektorean eta etxeko lanen zerbitzuan.

Herrira iristen diren immigratutako pertsonek, alde batetik, gabezia batzuk dituzte ingurunearen ezagutzan (baliabide instituzionalak, garapen sozialerako aukerak), eta, bestetik, proportzio esanguratsu batean, agian ez dakite hizkuntza ofizialetan hitz egiten (gaztelania eta euskara), ezta idazten ere. Bi gabezia horiek mugatu egiten dituzte kolektibo hori udalerrian finkatzeko eta berdintasunez iristeko sustapen indibidualerako eta sozialerako aukerak: lan arloko garapena, pertsonen arteko harremanak, programa publikoetan sartzea (heziketa eta formazio arlokoak, kulturalak...), eta gizarte zibil antolatuaren bestelako ekimenak (herritarren elkarteak).

1. PRESENTACIÓN

El Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Eibar, a partir del marco que define su ámbito competencial, pone en marcha un procedimiento para la contratación de un servicio que desarrolle el programa de acogida lingüística dirigida a la población inmigrada que es atendida actualmente en el Centro de Educación para Personas Adultas de Eibar y en Andretxea-Casa de las Mujeres de Eibar.

Tal y como describe el texto del Plan de Convivencia y Diversidad 2018-2021, aprobado por unanimidad según Pleno municipal de 29 de octubre de 2018, el fenómeno migratorio en el municipio de Eibar presenta una trayectoria dilatada en el tiempo. Desde el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Eibar se estima que se prolongue en los próximos años, fundamentándose en que el proceso de envejecimiento promedio de la población eibarresa, hace que en el mercado laboral del entorno del municipio se vea necesaria la incorporación de mano de obra foránea en un medio plazo, y sobre todo, en el sector de los cuidados y el servicio de trabajo de hogar.

La población inmigrada que llega al municipio, es una población que por un lado dispone de ciertas deficiencias en el conocimiento del entorno (recursos institucionales, oportunidades de desarrollo social), y por otro lado, en una proporción significativa, puede desconocer las lenguas oficiales (euskara y castellano) así como sus instrumentos de reproducción escrita. Ambas deficiencias suponen una limitación para que este colectivo poblacional se asiente en el municipio, y acceda en igualdad a las oportunidades de promoción individual y social: desarrollo profesional, establecimiento de relaciones interpersonales, incorporación en programas públicos (educativos, formativos, culturales,...), y

otras iniciativas de la sociedad civil organizada (asociaciones ciudadanas).

Eibarko Helduen Hezkuntza Zentroan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren menpekoa, hezkuntza-espazio batzuk eskaintzen dira gaztelaniaren ikaskuntzarekin eta alfabetatzearekin lotuak, zeinetara herrira finkatu berri den jende asko joaten den. Duela bi urtetik hona, Eibarko Udaleko Gizartekintza Sailak, zentro horretako Zuzendaritzarekin egindako akordio batean, espazio horiek indartu eta osatu ditu gaztelaniaren eta harreraren errefortzu-zerbitzu batekin, Eibarko zenbait gune instituzional eta sozialetan (Udal Liburutegia, Udal Museoa eta Antzokia, Andretxea,...). Eta, horregatik, lizitazio honen xede izango da zerbitzu hori indartzea.

En el Centro de Educación de Personas Adultas de Eibar, dependiente del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, vienen ofreciéndose determinados espacios educativos vinculados al aprendizaje de la lengua castellana y la alfabetización en la misma, en donde suele incorporarse un gran número de vecinas y vecinos recién establecidos en el municipio. Desde hace dos años, el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Eibar, en un acuerdo con la Dirección del citado centro, ha acompañado en aquellos espacios con un servicio de refuerzo de la lengua castellana y de acogida en ciertos espacios institucionales y sociales de Eibar (biblioteca municipal, museo y teatro municipales, Andretxea,...). Y es por ello que, será objetivo de la presente licitación el reforzar este servicio.

Bestalde, eta azken hiru urteetan, Eibarko Udaleko Gizartekintza Sailak gaztelania ikasteko zerbitzu bat eskaini du uztailean, eskolako oporrekin kointzidituz, zeinean jarraipena ematen zaien eskuratze- eta alfabetatze-jarduerei, eta, aldi berean, harrera-jarduerak egiten diren, hala nola herriko toki esanguratsuenetara astero antolatzen diren bisitak. Lizitazio honen xede izango da, halaber, zerbitzu hori hurrengo urteetan finkatzea.

Por otra parte, y en los tres últimos años, desde el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Eibar, se ha provisto de un servicio de aprendizaje de lengua castellana durante los meses de julio, coincidentes con las vacaciones escolares, en los que se da continuidad a las actividades de adquisición y alfabetización al mismo tiempo que se realizan actividades de acogida en el municipio como son las visitas semanales a espacios significativos del mismo. Igualmente, será objetivo de la presente licitación el consolidar este servicio durante los próximos años.

Bi zerbitzuak emateko oinarria Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1 artikulua da, zeinaren 35. paragrafoan adierazten baita udalerriek eskumen propioak baliatu ahal izango dituztela immigrazioaren arloko gizarteratze-politiken kudeaketaren arloan, atzerritartasunari buruzko legeriarekin bat etorriz eta autonomia-erkidegoetako erakundeekin lankidetzan. Era berean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 1.3 fitxan ere oinarritzen da. Dekretu horretan ezartzen da esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialeko zerbitzuak udal esparruko prestazio direla.

La prestación de ambos servicios tienen su fundamento en el artículo 17.1 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en cuyo apartado 35º se afirma que los municipios podrán ejercer competencias propias en la materia de “Gestión de las políticas de integración social en materia de inmigración, de acuerdo con la legislación en materia de extranjería y en cooperación con las instituciones autonómicas”. Asimismo, también tiene su fundamento en la ficha 1.3 del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, en el que se establece como prestaciones de ámbito municipal los servicios de intervención socioeducativa y psicosocial.

Bestetik, Eibarko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planean azaltzen den bezala, printzipio orientatzaileetako bat ahalduntzea da; esku-hartzearen lehen ardatza izateaz gain, emakumeen ahalduntzea helburua, tresna eta prozesu bat da, zeina hainbat mailatan

Por otra parte, y tal y como se expone en el V Plan de Igualdad de mujeres y hombres de Eibar, uno de los principios orientadores es el empoderamiento; Además de ser el primer eje de intervención; el empoderamiento de las mujeres es un objetivo, una herramienta y un proceso que

(pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa) eman behar den eta hainbat eremutatik (politiko-instituzionala, antolamendu arlokoa, soziala eta herritar mailakoa) lagundu behar zaion. Hala, emakumeen genero-kontzientzia, autoestimua eta autonomia bultzatuz. Nazioartean hitzartutako garapeneko eta jasangarritasuneko helburuak lortzeko eta Eibarko emakumeen eta nesken bizitza-kalitatea hobetzeko, ezinbestekoa da haien ahalduntzea lortzea. Udal Berdintasunerako V. Planaren 1.2.2.1. ekintza.

Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez, udal mailari dagozkion programak edo zerbitzuak eskaini nahi dira askotariko diskriminazioa jasaten duten emakumeen oinarrizko gizarte-eskubideak bermatzeko.

tiene que darse en diferentes niveles (personal, colectivo, social y político) y al que se tiene que contribuir desde distintos espacios (político-institucional, organizacional, social y ciudadano). Impulsando así, La conciencia de género, autoestima y autonomía de las mujeres. Para lograr los objetivos de desarrollo y sostenibilidad convenidos internacionalmente y mejorar la calidad de vida de las mujeres y niñas de Eibar, es imprescindible contribuir a su empoderamiento. Acción 1.2.2.1.del V Plan de Igualdad Municipal.

Cumpliendo la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Comunidad Autónoma del País Vasco, se pretende ofrecer la prestación de programas o servicios con el objetivo de garantizar el acceso a los derechos sociales básicos de las mujeres que sufren discriminación múltiple, que por su naturaleza hayan de prestarse con carácter municipal.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Agiri honen xedea da baldintza teknikoak ezartzea Eibarrera immigratutako pertsonei zuzendutako hizkuntza-harrerako programa eta alfabetatzearen bidez immigratutako emakumeen ahalduntze-prozesuak dinamizatzeko zerbitzua gauzatzeko eta garatzeko.

Eibarko Udalak, batetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko politikaren barruan, proposatzen du emakume immigratuak alfabetatzearen bidez ahalduntzeko gune bat sortzea, jabetze horretarako esku-hartze indibidual eta kolektiboak sustatuz, hizkuntza ofizialak irakatsiz, eta hainbat jatorritako emakumeak Eibarko gizartearen kulturan sartuz, bertan bizi baitira.

Helburu zehatzak hauxek dira:
- Emakume etorkinen inklusio soziala bultzatzea.

- Gaztelaniazko oinarrizko ezagutzak eskuratzeko eta alfabetatzeko prozesuei hasiera ematea.

- Euskaraz ahoz jarduteko oinarrizko ezagutzak eskuratzea.
- Elkar ulertzeko beharrezkoak diren gaitasun komunikatiboak garatzea.
- Harreman pertsonalak eta afektiboak garatzea.
- Autonomia eta autoestimua hobetzea.
- Hainbat gairi buruz hitz egiteko eta hausnartzeko espazio seguru bat eraikitzea.
- Indarkeria matxistari aurre egiteko tresnak lantzea eta prebentzio-lana egitea.

2. OBJETO DEL CONTRATO

Es objeto de este Pliego el establecimiento de las condiciones técnicas para la ejecución y desarrollo del programa de acogida lingüística dirigida a la población inmigrada del municipio de Eibar y el servicio de dinamización de procesos de empoderamiento de mujeres inmigradas a través de la alfabetización.

El Ayuntamiento de Eibar, por una parte, dentro de su política de promoción de la igualdad entre mujeres y hombres, se propone crear un espacio de empoderamiento de mujeres inmigradas a través de la alfabetización, mediante el fomento de intervenciones individuales y colectivas de empoderamiento, enseñanza de los idiomas oficiales, y la inclusión de mujeres de diversos orígenes en la cultura de la sociedad de Eibar, en donde residen.

Los objetivos concretos son:
- Promover la inclusión social de las mujeres inmigrantes.
- Iniciación de procesos de alfabetización e incorporación de conocimientos básicos en lengua castellana.
- Adquisición de conocimientos básicos para la comunicación oral en euskera.
- Desarrollar las competencias comunicativas necesarias para el entendimiento mutuo.
- Desarrollo de relaciones personales y afectivas.
- Mejorar la autonomía y la autoestima.
- Construcción de un espacio seguro de dialogo y reflexión sobre múltiples temas.
- Elaboración de herramientas y prevención frente a la violencia machista.

- Ikuspegi kritikoa garatzea.

Bestalde, Eibarko Udalak, immigratutako pertsonen gizarteratzea sustatzeko duen politikaren barruan, proposatzen du herrian finkatu berri diren pertsonei laguntzeko zerbitzu bat sortzea. Zerbitzu horretan, hizkuntza ofizialak eskuratuz eta haietan alfabetatuz, udalerrian autonomiaz jarduteko edukiak eta trebetasunak lortu nahi dira.

Helburu zehatzak hauxek dira:
- Eibarren finkatu berri diren pertsona immigratuen inklusio soziala sustatzea.
- Gaztelaniazko oinarrizko ezagutzen eskuratze-prozesuetan eta alfabetatze-lanetan laguntzea.

- Euskaraz ahoz jarduteko oinarrizko ezagutzak eskuratzea.
- Ikuspegi kritikoa garatzea.
- Udalaren baliabide instituzionalen berri izatea: udal administrazioa eta hari atxikitako zerbitzuak (gizarte-zerbitzuak, kultur eta kirol zerbitzuak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena), herriaren historia, eta beste batzuk.

3. PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Programa honetan, gaztelania ikasteko eta euskarazko ahozko komunikazioaren oinarrizko kontzeptuak eskuratzeko eskolak antolatu eta emango dira, ahalduntze-ikuspegiarekin eta Eibarko herrian harrera egiteko edukiekin. Eskolak honako ordutegietan eta lekuetan emango dira:

Eibarko Emakumeen Etxea-Andretxean (Zezenbide 9, behea):
- 2022ko apirilaren 1etik ekainaren 30era: astearte, ostegun eta ostiraletan, 10:00etatik 12:00etara.
- 2022ko irailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era: astearte, ostegun eta ostiraletan, 10:00etatik 12:00etara.
- 2023ko irailaren 1etik 2023ko abenduaren 30era: astearte, ostegun eta ostiraletan, 10:00etatik 12:00etara.

Eibarko Helduen Hezkuntza Zentroan (Isasi 39):

- 2022ko apirilaren 1etik ekainaren 30era: astelehen eta astearteetan, 17:00etatik 20:00etara.
- 2022ko urriaren 1etik 2023ko ekainaren 30era: astelehen eta astearteetan, 17:00etatik 20:00etara.

- Desarrollo de un enfoque crítico.

Por otra parte, el Ayuntamiento de Eibar, dentro de su política de promoción de la integración social de la población inmigrada, se propone crear un servicio para el acompañamiento a las vecinas y vecinos recién asentados, en el que mediante la adquisición de las lenguas oficiales y la alfabetización en las mismas, se adquieran contenidos y destrezas para el desenvolvimiento autónomo en el municipio.

Los objetivos concretos son:
- Promover la inclusión social de la población inmigrada recién asentada en Eibar.
- Acompañamiento en los procesos de alfabetización e incorporación de conocimientos básicos en lengua castellana.
- Adquisición de conocimientos básicos para la comunicación oral en euskera.
- Desarrollo de un enfoque crítico.
- Apropiación y conocimiento de los recursos institucionales del municipio: administración municipal y servicios adscritos (servicios sociales, servicios culturales y deportivos, promoción de la igualdad entre mujeres y hombres), historia del municipio, otros.

3. DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA

El programa consistirá en la organización e impartición de clases de adquisición de la lengua castellana y de nociones básicas de comunicación oral en euskara con perspectiva empoderante y con contenidos de acogida en el municipio de Eibar. La impartición directa de las clases se llevará a cabo en los siguientes horarios y localizaciones:

En la Casa de las Mujeres de Eibar-Andretxea (calle Zezenbide 9, bajo):
- Del 1 de abril al 30 de junio de 2022: todos los martes, jueves y viernes, de 10:00 a 12:00 horas.
- Del 1 de septiembre de 2022 al 30 de junio de 2023: todos los martes, jueves y viernes, de 10:00 a 12:00 horas.
- Del 1 de septiembre al 30 de diciembre de 2023: todos los martes, jueves y viernes, de 10:00 a 12:00 horas.

En el Centro de Educación de Personas Adultas de Eibar (calle Isasi 39):
- Del 1 de abril al 30 de junio de 2022: todos los lunes y martes, de 17:00 a 20:00 horas.

- Del 1 de octubre de 2022 al 30 de junio de 2023: todos los lunes y martes, de 17:00 a 20:00 horas.

- 2023ko urriaren 1etik 2023ko abenduaren 30era: astelehen eta astearteetan, 17:00etatik 20:00etara.

Portaleko Kultur Etxean (Bistaeder 10):

- 2022ko uztailaren 1etik 30era: astelehenetik ostegunera, 09:30etik 13:00etara, eta 15:00etatik 17:30era, eta ostiraletan, 10:00etatik 13:00etara.
- 2023ko uztailaren 1etik 30era: astelehenetik ostegunera, 09:30etik 13:00etara, eta 15:00etatik 17:30era, eta ostiraletan, 10:00etatik 13:00etara.

Gainera, agiri honetan aurreikusitako txostenak egiteko gehienez ere 8 ordu hartuko dira kontuan, eta kontratuaren esleipendunak fakturatuko ditu, eskatutako txostenak egin ondoren

Eibarko Helduent Hezkuntza Zentroan ikastaroak ematen diren aldietan, seihileko bakoitzeko 3 bisita antolatuko dira udalerriko erakundeetara, hala nola Udal Liburutegira, Andretxera, Udal Antzokira, Armagintza Museora, udal kiroldegietara, udaletxeko eraikinera, eta abarretara.

Portalean ikastaroak ematen diren aldietan, uztaileko hilabeteetan 4 bisita antolatuko dira ostiraletan udalerriko erakundeetara, hala nola Udal Liburutegira, Andretxera, Udal Antzokira, Armagintza Museora, udal kiroldegietara, udaletxeko eraikinera, eta abarretara.

Eskoletan parte hartzen duten pertsonen matrikula-prozedura udaleko langileek egingo dute Andretxean eta Portalean egiten diren aldietarako. Eibarko Helduen Hezkuntza Zentroan egiten diren aldietarako, matrikula ikastetxeko administrazio-zerbitzuek egingo dute.

Entitate adjudikaziodunak bilera bat egingo du sei hiletik behin Gizartekintza Saileko berdintasun-teknikariarekin eta immigrazio-teknikariarekin, programaren ekintzak koordinatzeko eta iradokizunak proposatzeko. Era berean, entitate adjudikaziodunak memoria bat aurkeztuko du hiru lekuetako bakoitzean eskolak amaitzean. Memorian programaren deskribapena egingo da, eta bertan jasoko dira egindako ekintzak, haietan parte hartu duten pertsonen kopurua, eta datuak sexuaren, adinaren, nazionalitatearen,

- Del 1 de octubre al 30 de diciembre de 2023: todos los lunes y martes, de 17:00 a 20:00 horas.

En la Casa de la Cultura de Portalea (calle Bista Eder 10):

- Del 1 al 30 de julio de 2022: de lunes a jueves, de 09:30 a 13:00 horas, y de 15:00 a 17:30 horas, y los viernes de 10:00 a 13:00 horas.
- Del 1 al 30 de julio de 2022: de lunes a jueves, de 09:30 a 13:00 horas, y de 15:00 a 17:30 horas, y los viernes de 10:00 a 13:00 horas.

Además, se considerará para la elaboración de los informes previstos en este pliego, un tiempo máximo de 8 horas que se facturará por el/la adjudicatario/a del contrato previa realización de los informes requeridos.

En los periodos de impartición en el Centro de Personas Adultas de Eibar, se organizarán 3 visitas exteriores por semestre a instituciones del municipio, como pueden ser la biblioteca municipal, la Casa de las Mujeres de Eibar-Andretxea, el teatro municipal, el Museo de la Armería, los Polideportivos municipales, el edificio de la Casa Consistorial, otros.

En los periodos de impartición en la Casa de la Cultura de Portalea, se organizarán 4 visitas exteriores por en dichos meses de julio durante los viernes, como pueden ser la biblioteca municipal, la Casa de las Mujeres de Eibar-Andretxea, el teatro municipal, el Museo de la Armería, , los Polideportivos municipales, el Edificio de la Casa Consistorial, otros.

El procedimiento de matrícula de las personas participantes en los grupos de impartición será realizado por personal municipal para los periodos en la Casa de las Mujeres de Eibar-Andretxea y en la Casa de la Cultura de Portalea. En los periodos de impartición en el Centro de Educación de Personas Adultas de Eibar, la matrícula se llevará a cabo por los servicios administrativos del centro.

La entidad adjudicataria mantendrá una reunión semestral con la técnica de igualdad y con la técnica de inmigración del Departamento de Servicios Sociales, al objeto de coordinar acciones y presentar sugerencias del programa. Asimismo, la entidad adjudicataria presentará una memoria al término de los periodos de impartición en cada una de las tres localizaciones, que será descriptiva del programa, en la que se recogerán las acciones realizadas, el número de personas participantes en las mismas con datos desagregados por sexo,

gaztelaniaren ikaskuntza-mailaren eta programa hobetzeko proposamenen arabera banakatuta ageriko dira.

Entitate adjudikaziodunak pertsona hezitzaile bat proposatuko du deskribatutako aldietan zuzeneko eskolak ematen direla betetzeko, eta kanpo-bisitetan laguntzeko.

4. BALDINTZAK

Agiri honen lizitaziora aurkezten diren pertsona edota entitate lizitatzaile guztiek egiaztatu beharko dute proposatutako pertsona hezitzaileak Filologia Hispanikoko titulazioa duela (Lizentziatura edo Unibertsitate-Gradua).

5. HARTZAILEAK

- Eibarrera immigratutako emakumeak, harrerako gizartean egokitzeko zailtasunak dituztenak hizkuntza-urritasunak dituztelako, batez ere gaztelaniaz, eta Andretxeko “Jabetze Eskolako” espazioetan parte hartzen dutenak.

- Eibarrera immigratutako pertsonak, harrerako gizartean egokitzeko zailtasunak dituztenak hizkuntza-urritasunak dituztelako, batez ere gaztelaniaz, eta Eibarko Helduen Hezkuntza Zentroan gaztelaniazko lehen ikastaroetan parte hartzen dutenak.

6.- PERTSONA HEZITZAILEAREN EGINKIZUNAK

- Saioen egitura eta edukiak lantzea eta aurretiaz aurkeztea.
- Eskolak zuzenean ematea.
- Saioen eta aldien ebaluazio-txostenak egitea.

- Jarraipen- eta koordinazio-saioak egitea Andretxeko dinamizatzaile eta teknikariarekin, berdintasun-teknikariarekin, immigrazio-teknikariarekin, eta Eibarko Helduen Hezkuntza Zentroko zuzendaritza-taldearekin.

- Ikuspegi feminista txertatzea eta gaien lanketa eta tratamendua bermatzea.

- Parte hartzen duten emakumeen ahalduntze-prozesuetan laguntzea, dauden tresnen eta zerbitzuen berri emanez.

- Parte hartzen duten pertsonen premiak identifikatzea eta bideratzea.

edad, nacionalidad, nivel de aprendizaje de Castellano, y propuestas de mejora del programa.

La entidad adjudicataria propondrá una persona formadora para el cumplimiento de los horarios de impartición directa en los periodos descritos, y para el acompañamiento en las visitas exteriores.

4. REQUISITOS

El requisito necesario para toda persona y/o entidad licitadora a éste pliego será la acreditación de que la persona formadora propuesta dispone de titulación (Licenciatura o Grado Universitario) en Filología Hispánica.

5. PERSONAS DESTINATARIAS

- Mujeres inmigradas de Eibar que presenten dificultades de adaptación en la sociedad de acogida por sus deficiencias lingüísticas, principalmente en castellano, que participan de los espacios de la denominada “Jabetze Eskola-Escuela de Empoderamiento” de Andretxea-Casa de las Mujeres de Eibar.
- Personas inmigradas de Eibar que presenten dificultades de adaptación en la sociedad de acogida por sus deficiencias lingüísticas, principalmente en castellano, que participan en los primeros cursos de castellano en el Centro de Educación de Personas Adultas de Eibar.

6.- FUNCIONES DE LA PERSONA FORMADORA

- Elaborar y presentación previa de la estructura y contenidos de la sesión.
- Impartición de sesiones en directo.
- Elaboración de informes de evaluación de las sesiones y de los periodos de impartición.
- Realizar sesiones de seguimiento y coordinación con dinamizadora y técnica de Andretxea, con la técnica de igualdad, con la técnica de inmigración, y con el equipo directivo del Centro de Educación de Personas Adultas de Eibar.
- Incorporar la perspectiva feminista y garantizar la elaboración y tratamiento de los diferentes temas.
- Acompañar los procesos empoderantes de las mujeres participantes, facilitando la información de las herramientas y servicios pertinentes.
- Identificación de las necesidades de las personas participantes y canalización/derivación de las mismas.

- Aniztasuna balioan jartzea.
- Berdintasuneko eta Immigrazioko udal teknikariekin aldi bakoitzerako egingo diren bisitak diseinatzea eta adostea.

- Puesta en valor de la diversidad.
- Diseñar y acordar con las técnicas municipales de igualdad e inmigración las visitas exteriores en cada periodo de impartición.

7. ENTITATE ADJUDIKAZIODUNAREN OBLIGAZIOAK

Izaera pertsonaleko datuen tratamenduari dagokionez, enpresa adjudikaziodunak errespetatu egin behar ditu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian jasotako preskripzioak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin lotutakoak. Horren haritik, kontratuaren iraunaldia amaitutakoan, enpresa adjudikaziodunak Udalari eman beharko dizkio izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategi guztiak, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa egoki betetze aldera.

Enpresa adjudikazioduna izango da kontratua gauzatzeko egin beharrekoen ondorioz eragindako kalte eta galeren erantzule, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 198 artikuluan agindutakoaren arabera. Enpresa adjudikaziodunak, kontratua sinatu aurretik, erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat sinatuta eta indarrean duela egiaztatu beharko du, ezbehar bakoitzeko gutxienez 300.000,00 euroko estaldura bermatuko duena. Estaldura horrek indarrean jarraitu beharko du kontratuaren iraupen osoan bai eta egon daitezkeen luzapenetan ere.

7. OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD ADJUDICATARIA

En cuanto al tratamiento de datos de carácter personal, la empresa adjudicataria deberá respetar las prescripciones contenidas en la Disposición Adicional Trigésimo Primera de la Ley 30/2007 de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, en relación con la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. A este respecto, cuando finalice la vigencia del contrato, la entidad adjudicataria deberá entregar al Ayuntamiento de Eibar todos los archivos que contengan datos de carácter personal que contribuyan al adecuado cumplimiento de la Ley orgánica 15/1999 de 13 de diciembre.

La empresa adjudicataria será responsable de los daños y prejuicios que causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato., de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 198 de la Ley 30/2007 de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. La empresa adjudicataria deberá acreditar antes de la firma del contrato, el tener suscrita y en vigor una póliza de seguro de responsabilidad civil que garantice una cobertura mínima de 300.000,00 euros por siniestro. Dicha cobertura deberá mantener su vigencia en todo el periodo de duración del contrato y de sus eventuales prórrogas.

8. GENERO BALDINTZAK

Kontratu honek derrigorrez bete behar ditu Eibarko Udalak generoaren arloan onartutako irizpideak.

Hortaz, kontratatu den programa gauzatzeko, genero-ikuspegia beti eduki beharko da gogoan.

Erabilitako dokumentazio guztian (programa aurkezteko idatziak, txostenak...) hizkera ez-sexistaren irizpideak aplikatuko dira.

Era berean, kontratuaren diseinuak eta exekuzioak generoaren ikuspegia hartu beharko dute aintzat, bai diagnostikoan, bai helburuetan, bai jardueretan, eta baita ebaluazioan ere. Halaber, amaierako justifikazioan, genero-eraginari buruzko memoria bat egin beharko da, programan parte hartu duten pertsonen datuak eta adierazleak

8. REQUISITOS EN CUANTO AL GÉNERO

Esta contratación deberá cumplir obligatoriamente los criterios que en materia de género tiene aprobados el Ayuntamiento de Eibar.

Así pues, la perspectiva de género deberá estar presente en todo momento durante la ejecución del programa contratado.

En toda la documentación utilizada (escritos de presentación del programa, informes, etc.), se deberán aplicar los criterios del lenguaje no sexista.

En el mismo sentido, el diseño y la ejecución contractual deberán contemplar la perspectiva de género en su diagnóstico, objetivos, actividades y evaluación. Igualmente, la justificación final deberá incorporar una memoria sobre el impacto de género, con indicadores y datos segregados por

sexuaren arabera banakatuta, eta generoaren araberako egoera islatuta.

sexo de las personas participantes en el programa, y la situación en función del género.

IMMIGRAZIO TEKNIKARIA
EL TECNICO DE INMIGRACIÓN

BERDINTASUN TEKNIKARIA
LA TÉCNICA DE IGUALDAD